

LAU ELEMENTUEN ERRONKA

Eneko eta Iker Pou

Aurkibidea

HITZAURREA . ANAIK ESKALADAN. THOMAS ETA ALEX HUBER.....	9
SARRERA	10
AUPA 40! LEHEN ELEMENTUA: AIREA	14
YAKU MAMA! BIGARREN ELEMENTU: URA.	30
BORJA. AUZOKO MUTIL BAT	43
LEVE LEVE. HIRUGARREN ELEMENTUA: SUA	53
HANSJÖRG AUER. AGURRIK EZ, BETIRA ARTE, LAGUN	65
HAIZEA. PATAGONIA, LERRO GORRI FINA	69
PERU. ANDEAN KINGDOM	79
COVIDA	100
RAYU.....	106
HITZALDIEN BIRA	132
ZORIGAIZTOA GAVARNIEN	137
LEHEN BIDAIA PANDEMIAREN ONDOREN	155
PERURA BUELTAN.....	155
BOST HILABETE GEROAGO, GAVARNIEN.....	189
ONE PUSH. BOSGARREN IZENDAPENA URREZKO PIOLETERAKO.....	195
WAA SHAKIR. LAUGARREN ELEMENTUA: LURRA.....	226
EPILOGOA	277

HITZAURREA

Anaiak eskaladan Thomas eta Alex Huber

Sokada da alpinismoaren bihotza. Lokarri hori osatzen duten kideen arteko konexioa nolakoa, halakoa izango da sokada. Zenbat eta gehiago ezagutu elkar, orduan eta gehiago jakingo dute bata bestearen indargune eta ahulguneen berri. Elkarlanean jarduteko ahalmenaren arabekoa da, hein handi batean, sokada baten sendotasuna; indarrak batzea eta ahulguneak orekatzea, horra bikoa sendoagoa egiten duen muina.

Sokada bat sokada bat da. Eta anaiak anaiak dira. Begi-bistakoa da familia bereko kideen arteko konfiantzak oinarri indartsua sor dezakeela. Guk zorte hori izan dugu: adiskiderik onena ondoan izan dugu beti gure proiektu guztietarako. Izan Yosemiteko big wall bat, Karakorumeko horma handi bat edo Antartikako pareta galdu bat. Bizitza bertikal bat bizi izan dugu, eta bide horretan planetaren zati handi bat ezagutu dugu, ia beti elkarrekin!

Oro har, ez dago anaia asko kirolen munduan, eta alpinismoan ere ez. Horregatik, interesgarria izan zen Euskal Herriko bi anaia hauei buruzko lehen albisteak irakurtzea. Hasieran, Poutarrek kirol eskaladan egin zituzten lehen urratsak eta ezarri lehen mugarriak, alpinismoaren zerumuga bertikal horretara iristeko bidean.

Baina anaia euskaldun hauek ikusmira zabaldu zuten, eta horma handien eta alpinismoaren munduan ere urratu dute bidea geroztik. Hala, azken urteotan legatu handia utzi dute, mundu zabaleko mendigune eta hormetan irekitako bideekin. Guretzat berezia izan da beti ikusmira zabal hori. Eta are bereziagoa aurrez aurre topatu izan ditugunetan. Haien igoeren kalitatea handia bada, are handiagoa haien gizatasuna eta izaera. Oroz gain, Iker eta Eneko Pouk jakin dute apustu egiten, beren bizitza bizitzen, erabakimen handiz, eta, horri esker, eskaladaren eta alpinismoaren *pole position* horretan jarraitzen dute bi hamarkada hauetan. Eta asmatu dute, orobat, beren bizipozarekin eta alaitasunarekin besteen bihotzak zabaltzen. Gaitasun berezi hori izan dute: goietan gauzak ondo egiteko, eta gero, behean, lorpenak ondo baino hobeto ospatzeko. Goian eta behean, bietan, haiekin izan gara gu ere zenbaitetan, eta jarrai dezagula elkarrekin gozatzen!

Goza ezazue zuek ere haien bigarren liburuaz, haien bizitza bizi az eta mugamugako abentura mugagabe hauetaz.



AUPA 40!

Lehen elementua: Airea



BIDE OA

Behe-lainoak ez zigun utzi Guillaumet orratzaren lepora iristen. “Kaka!” – pentsatu genuen gure baitarako; izan ere, ezusteko horren erruz, hurrengo egunerako hiru ordu gehiagoko ibilia izango genuen.

Cati eta Tomeu, bikote mallorcarra

Tira, zer ziren ba hiru ordu, halako konpainia onean: Cati Lladó eta Tomeu Rubi gurekin ziren Piedra Negrara bidean ordubetera dagoen harri blokearen ondoan bibaka egiteko. Mallorcako bikote bat da: alpinista bikainak dira biak, eta lagun-lagunak aspaldidanik. Alpeetako ipar horma nagusi gehienak eskalatutakoak dira, beste hainbat jardueraren artean. Mediterraneoko uharte batean paradoxa da gure bi lagunena; izan ere, irla hartan ia urte osoan eguzkia da jaun eta jabe, eta mendirik altuena, Puig Major, 1.445 metrora goratzen da doi-doi.

Berez, askoz gorago iristea zen asmoa, baina ezin izan genuen, eta, mendian sarritan gertatzen den moduan, etorri ahala hartu behar izan genituen erabakiak. Gauzak ez dira beti uste bezala ateratzen.

–Nola ikusten duzuen bloke hau? Hemen geratuko gara? Haize-babesa ematen du, eta behe-laino itxi honekin nekez iritsiko gara askoz gorago galdu gabe –gonbidatu genituen gure erabakiarekin bat egitera.

–Bai, hori izango dugu onena; ez du zentzurik gora jarraitzeak hain itxia egonda –erantzun zigun Tomeuk, eta bazekien zertaz ari zen, biek ala biek ondo zaildua baitute gorputza mundu zabaleko mendikate nagusietan eginiko bibaketan.

Esterak atera, puzgarriak gainean jarri eta zakuan sartu ginen. Gogotik eskertu genuen gaur egun dugun materiala; tokitan geratu dira aurreko belaunaldiak erabiltzen zituzten trepetak, zaku eta jantzi astun haiek. Egun, 15/20 kiloko motxila bat aski dugu lau eguneko irteera bat egiteko, bizirauteko beharrezko guztiarekin eta eskalatze materialarekin.



Guillaumet Orratzaren jaitsiera, horma izoztuta, Aupa 40 ireki ondoren (M.7/85°5+/525 m).

–Iker, ura berotzera noa zorroentzako; zuk ebaki *salamito* xerra batzuk, mesedez.

–Ederki. Zer jan nahi duzu gaur? –galdetu zidan anaiak, motxilatik zorro liofilizatuak ateratzeaz bat-. Aukera zabala dugu: karbonara pasta, arrautza nahas-kiak mexikar erara, *beef Stroganoff* eta oilasko *rissotoa*.

–Nik aukeran pasta nahiago; indarra emango digu biharko, eta haragi zorroak jaitsierarako utzi ditzakegu, hobeto sartuko zaizkigu eta –erantzun nion, beti gauzei logika bilatu nahi horretan.

Kezkatuta joan ginen lotara, hain behean bibaka egin behar izanagatik eta biharamuneko jipoia burutik kendu ezinik, baina eguna argitu eta oinez hasi ahala, 3:45ak inguruan, ederki jabetu ginen bezperan hartutako erabakia zuzena izan zela. Behe-lainoa ez zen desegin eta gau osoan elurra egin zuen; hala, arra bete elur genuen Piedra Negratik leporako bidea estaltzen zuen hartxingadian.

Eta noski, galdu egin ginen. Lehenak ginen goizeko ordu txiki haietan, ez zegoen inoren aztarnarik, gau itxia zen artean eta itsu-itsuan gindoazen. Ondo dio esae-rak: gaez katu guztiak dira beltzak.

Egunsentian, lehen argi printzekin, dena errazagoa izan zen, eta berehala berreskuratu genuen leporako bidea. Iritsi orduko, ikusmira zoragarriaz gozatu genuen. Eguzkiak laztan egiten zigun aurpegian eta distira errekaraz blaitzen zituen Guillaumet orratzaren ekialdeko aurpegia, Paso Superior ataka, Fitz Roy, Mermot eta inguruan genituen glaziar erraldoiak. Agertokia zinez zen arranditsua. Patagonian baino ezin da ederretsi halakorik. Gainera, ez zebilen batere haizerik. Egun zoragarria zen! Oraingoan parteak erdiz erdi asmatu zuen!

–Ekipo, eguraldiak ordu batzuk eusten badio, egun ikusgarria dugu aurretik! –egin zuen oihu anaiak, gogoberotuta.

–Bai, egun asko egon gara zain, baina iritsi da; gaur ez dago aitzakiarik, agian ez dugu halako antizikloi txikirik gehiago izango bidaia honetan –hauspoa eman nahi izan nion nik ere taldekideon pozari.

–Zer moduz? Ondo iritsi zarete? Gogotsu zaudete? –galdetu nien Cati eta Tomeuri, ez bainuen zalantzarik, haien eskarmentuarekin, aukera hura aprobetxatzeko gogoz zeudela haiek ere.

–Bai, gogorik ez zaigu falta, baina egia esan nekatu samar iritsi naiz ni behintzat –erantzun zuen Catik, nork eta mendian distantzia luzeko Mallorcako korrikalaririk onenetako batek.

Ikerrek ez zuen abagunea galdu zirtoa botatzeko.

–Ez ote da izango herenegun lasterka egindako bost orduengatik, Cati? –eta algara batean hasi zen barrez.

–Bai, hori izango da... –erantzun zuen berak, burua makurtuta eta baiezko keinua eginez.

–Esan genizun ba pazientzia dela bertute guztien ama Patagonian. Egunak dira leiho txiki hau iragartzen zutela; gorputzak ariketa eskatzen badizu ere, gorde egin behar dira indarrak honelako ekinaldiei begira sasoi betean egoteko. Orain da dena emateko unea, hiru egun hauetan!

–Esan nion nik ere, baina egoskorra da egoskorra denez. Eta nahikoa da nik esatea, are kasu gutxiago egiteko –gaineratu zuen Tomeuk, berak ere argi baitzuen duela bi eguneko lasterraldia ez zela hauturik egokiena izan.

–Bai, baina zera... nik uste nuen... –saiatu zen unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea justifikaezina justifikatzen.

Barrez hasi ginen.

–Tira, egindakoa egina dago. Onena izango dugu ahaztea eta alpinismoko jardun bizi baterako prestatzea –itxi genuen bikote-eztabaida Ikerrek eta biok.

Cati, igoera hartatik urte gutxira, Alpeetako sei ipar aurpegiak eskalatu zituen Espainiako lehen emakumea bihurtu zen. Lagunak esaten zuena egia zen: mandoa baino egoskorragoa da, baina seguru asko horri esker lortu ditu lortu dituenak, eta lortuko ditu aurrerantzean ere.

Tomeu, berriz, alpinista bikaina da: eskarmentu handikoa, indartsua, gogorra, hotza, erabakimen handikoa... aurreko belaunaldikoen ezpalekoa. Geunden lekuan haiekin mugitzea fidagarritasunaren bermea zen, nahiz eta guk, zirikatzaile samarrak izanik, egokierarik txikiena baliatzen genuen Catiri harpa jotzeko.

–Nola ikusten duzue? Ematen du Amy Couloirra baldintza onetan dagoela, baina itxura hobe du Guillot Couloirrak, ez baita errimaia zailik ikusten eta elurrez eta izotzez estalita dago goraino –proposatu nuen, horiek baitziren Guillaumet orratza igotzeko bi aukera bideragarriak.



Aupa 40 bidera sartzeko arrapalan. Hilabete bat itxaron ondoren, eguraldi ederra heldu zitzaigun.

–Bai, *Guillot* hobeto dagoela uste dut –adierazi zuen Tomeuk, mendiaren ekialdeko aurpegi ederrari so–. Zer iruditzen zaizu zuri, Cati?

–Ni ere aukera horren alde –erantzun zuen erabakimenez.

–Zuek zer egin behar duzue? –galdetu zigun Tomeuk, artean ez baitzuen argi zer asmo genuen.

–Gure hasierako planari eutsiko diogu, eta zuen Couloirraren ezkerrera bide berri bat zabaltzen saiatuko gara. Itxuraz, izotz-mingain bat dago, harkaitz zati batzuekin zipriztindua. Arriskatu egin beharko dugu, eta ea zortea dugun –erantzun genien, Fitz Royko mendigune honetan gure lehen lerroa zabaltzen saiatzeko asmo sendoarekin.

Egia esan, agertu zenetik eta aurreko mendearen 1990eko urteen amaieraz geroztik erabiltzaile guztientzat eskuragarri dagoenetik, Internet izeneko sare miragarri horrek aldatu egin du mundua. Horri esker, pixkanaka, eguraldi-iragarpenak guztion eskura egoten hasi ziren, eta, esan beharrik ez dago, edozein igoe-rari eguraldiaren nolabaiteko bermearekin ekitea, oso lagungarria dela. Beno, egia esan, ez da horrela gertatzen beti. Denboraldi txar-txarretan, 2017ko hartan bezala, nahastu ere egiten dira iragarpenak, eta bestela, esan diezagutela guri, mendi honetan bertan eginiko aurreko saialdian hezurretaraino mela-mela egin-da bukatu baikenuen Piedra Negrako kanpalekuan.

Gogoan dut nola izan zen orduko hura:

–Mutilak, atertuko du unereren batean! –esan nien Iker anaiari eta Tomeu Rubi lagunari goizeko hiruretan, goitik behera tximu eginda eta berotan sartu ezinik.

–Ez dakit ba nik... –zalantza egin zuen Ikerrek, etsitzen hasita, berak ere berotan sartzeko mugimenduak eginez.

–Erdian utzi nauzue, jakinda zuek askoz gehiago bustiko zinetela. Eskertzen da, baina nahi baduzue aldatuko dizuet lekuz, blai eginda zaudete; ematen du zakua aintziratik atera berri duzuela –aipatu zuen Tomeuk, ulerbera eta eskuzabal.

–Tira, bai, egia esan igoera osoan euria izan dugu goian-behean, arratsalde osoan berdin jarraitu du eta gauez ere bustitzen ari gara –gaineratu nuen hortz-kriskitinka.

–Iragarpenarekin ez dute asmatu oraingoan. Gainera, haize zakar samarra harrotzen hasi da –erantsi zuen Ikerrek, ahal zuen moduan dendari eusten zion bitartean.

–Geruza bakarreko denda hauek arinak, bai, ikaragarri arinak dira, baina argi dago ez daudela halako erauntsiak jasateko prestatuta, eta are gutxiago gaur bezala haizatuta erortzen bada! –gehitu zuen Tomeuk etsia hartuta.

Gau hura nola edo hala igaro genuen, begirik bildu gabe eta erabat bustita; beraz, goizean, haizearen orroak are indartsuagoak zirela ikusita, behera egin genuen.



“Ezinezko” mendien mundu bat

Baina itzul gaitezen gure eskaladara. Zorionez, eguna distiratsua zen, garbia eta haizerik gabea. Tomeu eta Cati denborarik galdu gabe abiatu ziren Guillot korridorerantz. Guk gure helburuari heldu genion, elkar agurtu ondoren.

–Zorte on, bikote! Gozatu! Eguna zoragarria da eta aprobetxatu beharra dago –hauspotu genituen, elkarri bostekoa emanaz.

–Berdin zuek ere, ekin gogor bide berri horri! –oihukatu ziguten, eta bakoi-tzak bere aldera jo zuen.

Aurrerago, sokada bakoitzak glaziarrean bere arrastoa urratu ahala, deiadar egin genion bikote mallorcarrari.

–Seguruena guk baino lehenago bukatuko duzue; beraz, ikusten baduzue guri oraindik denbora puska bat geratzen zaigula, jo lasai Piedra Negra alde-rantz, han behean hobeto lo egingo dugu eta.

–Ados! Zorte on!

Kilometro batzuetara, El Chalten begietsi genezakeen. XX. mendeko 1980ko urteen erdialdera sortu zuten argentinarrek hiria, Txilerekin zituzten lurralde-liskar ugariak zirela-eta Patagoniako alde honetan beren burujabetza sendotze-ko, eta gaur egun herri abegitsua da. Hiru mila lagun inguru daude El Chaltenean erroldatuta, baina udan modu esponenzialean biderkatzen da biztanle kopurua.

Egunsentiko ordu haietan, herria esna eta bizi-bizi izango zen honez gero, eta gure lagun Fernando Irrazabal Capi eta Martina McNamara Azkarraga bizi diren etxean lehen mateak hartuak izango zituzten, seguruenik. Azkarraga, zer kasualita-tea Martinak bigarren abizena euskalduna izatea, gure bigarren abizen bera, gaine-ra! Hori da haien usadioa, lehenik matea eta handik tarte batera gosaria. Ez da belar desatsegina, egia esan, baina guri kirio guztiak dantzan jartzen dizkigu mateak, ez baikaude batere ohituta edari bizigarrietara, eta, ahal dela, ez dugu hartzen.

–Marti, uste dut mutilek zorte handia izan behar dutela! Eguraldi zoragarria dute! –irudikatu genuen Capi bere bikotekideari esaten, etxeko leihotik teleskopioarekin harkaitz eta elurraren artean bilatzen gintuen bitartean. Baina oso urrun ginen, eta nahiz eta gailua oso-oso ona izan, ez zuketen lortuko gu hor-man kokatzea. Hori bai, ederki asko bereiziko zuen Cesare Maestrik eta haren taldeak Cerro Torre mendiaren *headwall*-ean abandonatuta utzi zuten konpre-sorea. Italiarrek hego-ekialdeko ertzetik, ohiko bidetzat hartzen den horretatik, eskalatu zuten mendia 1970ean, eta hantxe utzi zuten zulagailua. 1959an Maes-triren beraren eta jaitsieran zorigaiztoko istripua izan zuen Toni Egger hego-ti-roidarraren igoerak zalantza handiak sortu zituen nazioarteko komunitatean, eta jendea isilarazteko, itzultzea eta bide berri bat zabaltzea erabaki zuen ita-liarrak. Konpresore haren bidez, hormaren zati handi bat behetik goraino zulatu



Azken-aurreko luzean, tximinia zail bati egin behar izan genion aurre, M.7ko tirada gainditu ondoren.

zuen, eta alpinismoaren historian egundaino zabalik dirauen polemikarik garra-tzenetako bat sortu zuen, zauri orbanezin bat nola. Azak ontzeko, gainera, gerora igotako eskalatzaileen eta egindako ikerketen arabera, bigarren horretan ere ez zuen gailurrik jo, eta, beraz, alpinismoaren historiako beste porrot handietako baten aurrean geundeko.

Polemikak polemika, aitortu behar da alpinista italiarra bere belaunaldiko onenetakoa izan zela eta garai hartako espedizioak horixe zirela, egiazko espedi-zioak, eta helburuari aurre egiteko adorea eta erabakimen izugarria behar zirela.

–Zer ondo! Ea ba lortzen duten! Tomeu eta Catirentzat lehen bidaia da lurral-de hauetara, baina Poutarrentzat ondo merezitako saria litzateke mendigunean lehen bidea zabaltzea –erantzungo zion seguruenik Martinak, gero eta hobeto ezagutzen gaituen heinean ondo baitaki zerk bultzatzen gaituen mendira.

Zalantzarik gabe, antzeko zerbait gertatuko zen Txokolategian: Anabel Ma-txiniena eguna urratzearekin bat esnatuko zen, eta, leihotik behako bat eman



Horma oso bertikala zen eta, kranpoiak jarrita, elurretarako prest, harkaitz-zati zailak egitea dagokigu.

orduko, irribarre egingo zuen pentsatuz asmatu dugula (“alubita horiek zortea izan dute beste behin”), eta 2013an Cerro Torrera egin genuen igoera etorriko zitzaion burura. Orduan, eguraldi onak, motibazioak eta irmo eusteak, hirutasun horrek, munduko gailurrik ederrenaren gailurrera eramanez gintuen, guretzat denik eta ederrena baita Cerro Torre.

Herrian ere egun bikaina izango zen eta inork ez zuen alferrik galtzen utziko; izan ere, halako bete-beteko egunak ozta-ozta zenbatu litezke esku bakarreko hatzekin. Jendea bainatu ere egingo zen zuzenean hegoaldeko izotz patagonikotik urak isurtzen dituen Las Vueltas ibai izotzuan. Turistak trekkingak egitera eta mendiaz goatzera aterako ziren: Laguna Torre, Laguna de los Tres, Río Blanco, Vuelta a las Lagunas... izan ere, munduko ibilbide ikusgarrienetako batzuk daude inguruotan. Eta ilunabarrean, denak herrira bueltatuta, afaltzera edo garagardo batzuk hartzera aterako zen jendea, eta txokolategia bera, tabernak, ostatuak, ahotsez eta barrez mukuru beteko ziren.

2006an lehen aldiz iritsi ginenetik, izugarri hazi da El Chalten, Hego Amerikako Chamonix kozkor bat bihurtzeraino. Baina guri gutxienez bi egun falta zitzaizkigun zibilizazioaren luxuez goatzeko.

Eskaladaren hasieran geunden, eta gure antzera egongo ziren beste sokada pila bat, mendigune osoan. Denok aprobeztatu nahi genuen eguraldi oneko leiho hura. Tentuz eskalatu behar genuen; izan ere, zoritxarrez, eguraldiaren onaldi

hauek askotan ekartzen baitute atzetik istripuren bat, sarri samar erlojuaren aurka aritzen garelako, beti nahi baino lehen iristen den eguraldi txarrari enbidoa irabazi nahian.

Bide berriaren lehen 200 metroak ustekabekorik gabe utzi genituen atzean, 55°–60° inguruko batez besteko maldan. Azkar gindoazen, *ensemble*-an, bilgunerik muntatu gabe. Hala ere, antzematen genuen gure buruen gainetik zeuden 200 metroak askoz zailagoak zirela. Hor hasten zen zati teknikoa.

Behetik ia dena izotza iruditzen zitzaiguna, mistoa zen bertatik bertara. Niri zegokidan eremu hura.

Bidearen zatirik handiena arrakala estu eta izoztuetan gora zihoan. Frantsek *goulotte* esaten diete halakoei, eta artesi fin horietan, harkaitzean aseguratzen duzu zure burua; beno, ahal duzunean!

–Kontuz hemen, Iker, misto hau zaila da eta! –ohartarazi nion anaiari oihuka, piolet eta kranpoiekin harkaitza doi-doi harramazkatu eta orekari nekez eusten niola.

–Asegura zaitez nola edo hala, hemen ezin dugu erori eta! –gogorarazi zidan Ikerrek kezkatuta. Izan ere, El Chalteneko sorospen-taldeak lan harrigarria egiten du, baina Patagonian ez da erreskaterik egiten horman bertan. Zerbait gertatu izan balitzaigu, gutxienez bidearen oinarriaraino jaitsi beharko genukeen. Ondo dator hori gogoan izatea eta zentzumen guztiak zorroztea, konpromisoa erabatekoa da eta.

Bi orduren buruan, erabat harkaitzekoa den luze bakarrera iritsi ginen azkenik. Harrian, anaiak hartu zidan txanda, katu-oinak jantzita. Nik, aldiz, botekin jarraitu nion atzetik. Katu-oin pare bakarra eramanez genuen, pisua arintzeko; beraz, txandaka joan beharrean ginen ezinbestean. Luze horren ondotik, mistoko bi tximinia etorri ziren. Lodi ateratu genuen izerdia biak gaintzeko.

Niri egokitu zitzaidan lehena, gogorra baino gogorragoa: izotzak ez zuen gorputzik eta, ondorioz, apenas sar zitekeen torlojurik. Okerrena azken zatia izan zen, estutu egiten baitzen, eta postura erabat antinaturalak hartzera behartu ninduen eskaladak.

–Iker, erne, oso gaizki aseguraturata nago eta ez dakit ataka honetatik nola aterako naizen!

–Hartu arnasa eta ez urduri jarri! Bide batez, asegura zaitez, tarte handia egin duzu-eta ezer sartu gabe!

–Baina zer uste duzu, ez naizela saiatzen edo zer? –erantzun nion, izotz-geruza finean pioleta iltzatzeko beste ahalegin bat eginez, alferrik enegarren aldiz, harkaitzak etengabe egotzi egiten baitzidan piolet-kolpe bakoitza. Harrigarria da, goitik behera jantzita eta giro glaziar eta izotzu hartan murgilduta, gorputza nola has daitekeen izerditan, baina halako ataka gaizto batean egon beharra dago,